

Jon Gerediaga, konstantziaren poeta

Jon Gerediagaren 'Natura Berriak' lanak irabazi du Xabier Lete Euskarazko Nazioarteko V. Poesia lehiaketa. Dena dela, Gerediagaren jarduna ez da urte bateko liburu saritua, ez da olatuaren gainean doan aparra. Bilbotarraren lirika konstantziaren lirika da, beti bat eta beti desberdina



Argazkia: Gipuzkoako Foru Aldundia

Guztira 30 obra aurkeztu dira aurten Xabier Lete olerki lehiaketara, eta epaimahaiari Jon Gerediagaren *Natura Berriak* gustatu zaio. Liburu saritua hautatzeaz arduratu direnek nabarmendu dute Gerediagaren poema-liburuak estilo batasun eta kohesio handia duela, eta, batik bat, estilazioan egin duen ahalegin poetikoaren kalitatea azpimarratu du. "*Natura Berriak* poema ederrekin osatutako bilduma da, ideia ardatz jakin batzuen inguruan eratu duen etengabeko lanketa batean oinarritua. Behaketa poetikoaren aszetika dario obrari, eta, hurbileko behaketa orori dagokion legez, *tempus* geldo batean eraikia dago. Orobat, hainbat mende eta tokitako ekarpen poetiko ugari azaleratzen ditu, lerro artean kokatzen dituen zita xeheetan iradokitzen duenez. Urruneko Ekialdeko poesiaren fintasuna eta sakontasuna ere iradokitzen dituen arren, asmo poetikoa mendebaldekoa da: Lukrezio poeta-zientzialariari buruz egiten duen lehenbiziko zitan *De rarum natura*-ri buruz ari dela iradokitzen digu, sortutako materia ororen norabideari eta funtsari buruzko galderak eginez". Asmo hori gauzatzeko, egutegi moduko bat egituratzen du egileak, eguneko orduen arabera garatua, "non gi-

zakiaren bihotz hauskara azaltzen zaigun materia guztien artean, egunetik egunera orduen gurgpilean murgilduta".

Liburu zedarriak

Luze hitz egin genezake Jon Gerediagaren (Bilbo, 1975), antzerki lanez. Ez alferrik, Antzerkiola Imaginarioa antzerki taldearekin zenbait obra sortzen lagundu zuen: *8 Olivetti Poetiko* (Hiru, 2001), *Mundopolski* (Artez, 2007), *Yuri Sam, otoitza* (Artez, 2007), *Au revoir triunfadoreak* (Artez, 2007), *Babiloniako loreak* (2009), *Etxekoak* (2015, Huts teatroa).

Poesiari dagokionez, *Fitola Balba, Karpuki Tui* (Pamiela, 2004) izan zen bere estreinako lana. Lerro luzeen eta irudi haluzinagarrien zaleen gozagarri, mundu absurdo eta arean apokaliptikoak zekartzan. Batzuetan idazkera automatikoa zera-bilela zirudien, eta umorea ere bazeukan, deskribatu ezin den horretara hurbiltzeko.

Geroago, *Jainkoa harrapatzeko tranpa*-n (Pamiela, 2007), Beñat

Sarasolak esanda utzi zuen legez, bila jarraitu zuen: "irakurleak etengabe ibili beharko du poema hauek osatzen, poetarekin batera bilatzen". Sarasolaren ustez "hiztegiatara makurtzen ez diren poeta" horietarikoa da Gerediaga, "bizitza denik eta fidelen harrapatzen saiatzen" direnetakoa.

Zentauro hankak (Pamiela, 2012) lanarekin pausatu egiten da nolabait poetaren ahotsa. Sukarrak jotako *Fitola balba, karpuki tui* baino harago doa. Lehen liburu ausart eta berdeen kasuan ikus daitekeen legez azertu eta arriskueta erori zela, *Zentauro-hankak* izan zen gizon emakumeen ametsen eta zentzumenen mugara hurreartzeko modu bat. Jadanik Gerediagaren idazkera ez zen soilik "interesgarria" edo "berri-tzailea". Jadanik ez zen bakarrik sena, ezpada erraz identifikazitekeen ahots eta tonu propioa, nahasmenarena.

'Locus amoenus'

Eta naturarantz, gizakien bar-

Gizakiaren erraietan arakatzeko beharrezkoa da gizakiari buruz hitz egiteari uztea, eta poesiaren kadentzia entzutea



'Natura Berriak' poema ederrekin osatutako bilduma da, ideia ardatz jakin batzuen inguruan eraturakoa

ne ibaietarantz egin zuen gero poetak. *Argia, lurra, zuhaitza, zera* (Pamiela, 2015) poema-liburuan bizitza egiazko poesia bihurtu zen. Bilaketaren kronika da liburu hau, putzuaren hondoa ezaguturik harritzen baita bat sendabideaz, ume-zurtza oroitzen da azkenik bazuela aita. Eta begiratu nola berdatzen diren adaburuak astiro neguaren ostean, sagasti zuri-zuriak sutan, liburu honek azaltzen digu zer den benetan garrantzitsua eta zer bigarren mailakoa.

Urtaroak eta zeinuak ere (Pamiela, 2019) bide beretik doa. Beti diskurtso bera, beti aldatzen doan poema bera dela dirudi liburu osoak. Eta harrigarriena da insistentzia horretan egiten duela aurrera diskurtso poetikoak, eta irailko zeruen antzera direla poema guztiak beti bat baina beti desberdin: "Ikusiko ditut berriz, / behin eta berriz berdatuko dira". Belarraren gorazarrea, fruta-arboletako loreena, sagarrarena, *Urtaroak eta zeinuak* ez da ari konkistatu beharreko inguru latz batez, ezpada gure espiritua. Egin ditu idazleak batzuetan konparazioak naturaren eta bere zirraren artean, baina izadia hemen ez da pertsonifikatua, ez da erromantikoek asmatua, ez da agertokia, ez da *locus amoenus*.

Eta bide horretatik iritsi gara *Natura Berriak* honetara, Xabier Lete Euskarazko Nazioarteko V. Poesia lehiaketako lehen saria merezi izan duen poema-liburura. Jon Gerediagaren bide poetikoa ez baita izan dena izar, dena adar eta kimu. Bere bilaketa izan da beti gizakiaren erraietan. Gertatzen dena da, batzuetan, gizakiaren erraietan arakatzeko beharrezkoa dela gizakiari buruz hitz egiteari uztea, eta poesiaren kadentzia entzutea.

Igor Estankona

'Noiz arte arrazoi'

Juan Kruz Igerabideren *Noiz arte arrazoi* (Alberdania, 2020) Adunako idazlearen aforismo-maisulan bat gahiago da. Juan Kruzek Adunan idatzitako aforismoek, edo Hipokratesek Kosen idatzitakoek berdin, denek sortzen didate zalantzaren durundua barruan, denek ematen didate zer pentsatua. Aforistikoak ez dira nire obra gogokoena, baina Igerabiderenak denak irakurri ditudala esango nuke: guztietatik atera dut ikaspenen bat, gozamenen bat. Gai lodiak di-da ebazten dira hemen. Generorik laburrena ederki dominatzen baitu Igerabidek. Twitterreko txiorik fragmentatuenak baino laburragoak askotan, bere sententziak gezurra bezain eraginkorrak dira, baina egia bilatzen dute: "Historia aitzina doa, geldiezin; eta atzetik dator, ziztu bizian, ahanzturaren orban unibertuala". Egia bakarra ez den egia horren bila ironia, lirismoa eta paradoxa darabiltza idazleak. Poesia eta aforismoa elkar ukitzen daude beraz liburu honetan.



Sapho, antologia

Zuzenean grezieratik, eta estilo aski zuzenean, Maitte López Las Herasen itzulpenak eroan nau poesiaren sorlekura, mitoei eta benetako munduak eta lesbianen ezpainek elkar ukitzen zuten Saphoren garaira. *Safo, poesia guztia* (Balea Zuria, 2020) hauts apur bat da, esku ahurrean kabitzen dena. Poesia zatikatu bat dakar, interpretazioak eta bukarak behar dituena. Grezia zaharreko tenplu ugari egongo dira tenplu poetiko hau baino hobeto kontserbatuak. Bederlatzi liburuetatik, oda, epitalamio, abesti, elegia eta ereserkietatik, gutxi batzuk geratu ziren zutik, euretako asko doi-doi.

Edizio honek atal bat badauka aparte non bildu diren Saphoren inguruko "aurkikuntza berriak", hots, XX. mendeak ekarri dizkigun bi poema ezezagun eta olerki hondatuak hobeto ulertzeko balio izan duten zenbait ahapaldi. Sapho irakurtzea da lehen aldiz irakurtzea hainbat gauza gaurgaruko. Batez ere bitalismoa dario. Dena da maitasuna, bizitza, desamodioa, eta bizitza atzera ere.

